



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Hizkuntza aldakortasun geo-
soziolinguistikoa Arratian

Naia Eguskiza

67-71 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.01.09>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



UPV EHU



Hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa Arratian

Naia Eguskiza

*EUDIA ikerketa taldeko kidea. Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
(EHU, Bizkaiko kanpusa)
eguskiza.n@gmail.com*

Laburpena

Lan honek hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa izango du aztergai Arratiako herrietan. Helburuak lortzeko datuak galdetegi baten bidez bilduko dira: eskualde horretan gaur egun belaunaldi desberdinetako hiztunen artean dagoen hizkuntza aldakortasuna ikertzeko balio izango digutenak. Ezaugarriok fonologiari, izen-morfologiari, aditz-morfologiari eta sintaxiari dagozkienak izango dira. Hautatutako ezaugarriak 48 lekukoren grabaketetan ikertuko dira. Zortzi lekukorekin egingo da lan herri bakoitzean: 1950-1965 urteen bitartean jaioetako emakume birekin eta gizonezko birekin eta 1985-2000 urteen bitartean jaioetako beste bina emakume eta gizonekin. Guztira beraz, 6.720 datutik gorako corpusa osatuko dugu.

Hitz gakoak: Hizkuntza aldakortasuna, soziolinguistika, geolinguistika

Abstract

The aim of this paper is to analyse the regional linguistic variation of the Euskera language in the villages of Arratia. For this project we will gather all the necessary data through a questionnaire that will enable us to investigate the current linguistic variety among speakers of different generations and gender. These features match the scope of phonology, nominal morphology, verbal morphology and syntax. The characteristic features selected will be analysed through recordings made to 48 people. Eight people in each place: two women and two men born between 1950 and 1965, and two women and two men born between 1985 and 2000. We will build, therefore, a corpus with over 6,720 data.

Keywords: language variation, sociolinguistics, geolinguistics

1. Sarrera eta motibazioa

Animalien erreinuarekin antzekotasunak aurkitu gura izatekotan hizkuntzaren aldaketa, adaptazioa, kameleoienarekin egin genezake. Kameleoiek egoeran aldatzeko abilezia daukate, ingurugiroarekin bat egitekoa. Hizkuntzek antzera egiten dutena badakigu, denborarekin aldatuz datoz. Egoera berrietara moldatuz, hiztun berrien mingainetara ohituz.

Euskara hezkuntza formalean irakasten hasi izanak, estandarrak, asfaltoak, IKT berriek, globalizazioak... daragite aldakuntzan. "All languages change through time. We do not really know why this is, but it is a characteristic of all human languages. They also change in different ways in different places" (Trudgill, 2003:7).

Baina zeintzuk dira aldaketa horiek dakartzaten tendentziak, joerak? Zeintzuk dira horren erantzule? Euskara estandarrak bere funtzioa daukan honetan, zelako eragina dauka horrek Arratiako berbakeran? Igorre eremuko erdigune sozioekonomikoa eta kulturala izanik ere, ba al dauka eragin linguistiko esanguratsurik hizkeraren aldaketan? Eta aldaketa hori esponentziala al da?

Doktoretza tesi izango den honen helburua planteatutako galdera horiei erantzunak aurkitzea izango da. Eta artikulua edo lantxo honen bidez Arratiako hizkuntza aldakortasun geo-soziolinguistikoa jasotzeko, aztertzeko eta ondorioak aurkezteko egingo den bidea azalduko da. Lanaren helburua Arratiako herrietako belaunaldi biko andrazkoen eta gizonezkoen arteko bariazio geo-soziolinguistikoa aztertzea da, hots, geografiaren, adinaren eta generoaren arabera dagoen aldakortasuna ikertzea. Izan ere, hizkuntza "ez da monolitikoa. Hizkuntza aldakorra da" (Martínez, 2010:86). Horregatik, beharrezko irizten diogu Arratiako hizkera bere aldakortasunean aztertzeari.

Arratia osatzen duten herrietako euskara bildu, aztertu eta datuok euren artean erkatu egingo ditugu, Igorre Arratiako erdigunea izanik, gainontzekoetan daukan eragina aztertuz (Iglesias, 2015).

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Bizkaiko hegoaldean dagoen Arratia deituriko eremu geografikoko euskara barietatea, Bonapartek (1863-1869), mendebaldekoen artean sailkatu zuen. Beranduago, Zuazok (2008), “mendebaleko euskara” zeritzona, azpieuskalki bitan banatu zuen: sartaldekoan eta sortaldekoan. Zuazok urte batzuk oraintsuago (2014), sartaldeko azpieuskalkian multzo nagusi bi bereizi ditu: ipar-sartaldekoa eta hego-sartaldekoa. Hego-sartaldean Arratia ibarra eta Zeberio sartuz, beste herri batzuen artean. Bestela esanda, Zuazoren arabera, Arratiako hizkera sartaldeko azpieuskalkian dago, hego-sartaldeko hizkeren artean. Gamindek (2007) Bizkaiko gramatika arauari jarraiki egindako azterketa kuantitatiboaren ondorioz, Arratia mendebaldeko multzoaren barruan sartzen du. Ondoriozta dezakegu beraz, Arratiako hizkerek, Zuazok (2008) eta Gamindek (2007) euren lanetan ematen dituzten ezaugarriak eta arauak bete behar lituzketela.

Lan honetan, Arratia osatzen duten herrien eta Zeberioaren arteko berdintasunak eta desberdintasunak aztertuko ditugu, kontuan izanik belaunaldien eta generoen artean aldaketak egon badaudela. Gainera, Arratia osatzen duten herrietako euskara bildu, aztertu eta datuok euren artean konparatu ostean, Igorrek gainontzekoengan daukan eragina aztertuko dugu. Igorre Arratia bailarako erdigunea delako.

Atzerrian, aspaldidanik utzi izan zaio soziolinguistikari ikerketa esparruan eremu nabarmena. Euren ekarpenengatik mundu mailan ezagun dira Blommaert (2010), Eckert (2000), Labov (2001), Tagliamonte (2012) eta Trudgill (1983), beste batzuen artean. Azken horrek, honela definitzen du soziolinguistika: “Sociolinguistics is the science which deals with the relationship between language and society. It is therefore a very broad topic, encompassing the study of social dialects, language attitudes, stylistic variation, conversational interaction, multilingualism, language change, and much more” (Trudgill, 1984:2.or). Mundu mailan baita, sano prestigiodunak dira, NWAV (New Ways of Analyzing Variation), ICLaVE (The International Conference on Language Variation in Europe) eta Methods kongresuak ere.

Gure artera etorririk eta euskarari dagokionean, aldakortasunaren ikuspegitik egindako ikerketa gehienak maila diatopikoan egin dira, euskararen aldakortasuna geografikoki landuz, herriz herriko aldeari erreparatuz, eta ez horrenbestean aldakortasun soziolinguistikoa dagokionean. Hala ere, aldakortasun soziolinguistikoa arenganako interesa eta ardura gurean ere apurka indarra hartuz dator, batetik EUDIA ikerketa-taldearen argitalpenei esker; eta, bestetik, master lanen, tesien eta ikerketa lanei esker (Garmendia, 2008; Iglesias 2014; Ensunza, 2015; Lujanbio, 2016). Orain artean trazatutako bide honetan ezin utzi aipatu barik, doktoretza tesi honen zuzendaria den Iñaki Gaminderen ekarpen guztiak, zein Gotzon Aurrekoetxearenak. Hala ere, osotasunean Arratia inguruko herrien arteko hizkuntza aldakortasuna aztertzea eta beronek eskolan daukan lekua ikertzeke dagoenez, hori da behar honen xedea, etapa honetarako eta baita etorkizunera begira ere, dagoen gabezia hori asebetetzea.

3. Ikerketaren muina

Atal honetan bariazio geo-soziolinguistikoa ikertzeko erabiliko dugun metodologia, horretarako sortu eta erabiliko dugun galdetegia eta corpusa adieraziko dira.

3.1. Metodologia eta corpusa

Hainbat dira ikerketa soziolinguistikoa edota dialektologikoa egiteko metodoak eta moduak. Tagliamontek (2012) hizkuntza aldakortasuna eta bariazioa aztertzeko prozedura honela aurkezten du: 1) Observation, 2) identification, 3) reconnaissance, 4) Systematic Exploratory Observation, 5) test hypotheses, claims and observations, 6) interpret and explain the variable patterns, social and linguistic.

Guk ere, hizkuntzaren aldakortasuna aztertzen diharduten beste ikertzaile askoren legez eredu hori jarraitzearen hautua egin dugu eta antzera egingo dugu behar. Behaketarekin hasita hizkuntza aldakortasuna ikertzeko beharrezkotzat jotzen ditugun ezaugarriak identifikatu eta aukeratuko ditugu.

Aldakortasuna non gertatzen den zehaztuko dugu (reconnaissance). Formen inbentarioa egingo dugu ondoren, aldakortasun noiz, zeren arabera den eta nork darabilen zehatzuz. Hipotesiak eta behaketen frogatzea etorriko da gero eta azkenik, aldagai-ereduak interpretatu eta azalduko ditugu (hizkuntza aldagaiak eta gizarte-aldagaiak).

Aldakortasuna sistematikoki eta ezaugarri berdinak lekuko guztiengan behatzeko, itzulpen eta interpretazio bidezko galdetegi osatuko da. Galdetegi horren xedea erantzun zehatzak biltzea da, gerora, elkarren artean konparagarriak izango diren datuak lortzeko. Egia da, datuak jasotzeko bide bat baino gehiago egon badagoena: elkarriketa gidatua eta behatzaileak bideratutakoa, lekukoa bere ingurune sozial eta naturalean aztertzea (familiarrean, lagunarean) edota hizkuntza erabilera publikoan behatzea. Hala ere, hemen, ahalik eta informaziorik zehatzenaren bila jo asmoz, galdetegi itxi bat planteatzen dugu.

Lekuko bakoitzak 140 ezaugarri emango die erantzuna. Arratiako 6 herritan (Lemoa, Igorre, Dima, Artea, Zeanuri eta Zeberio) 8 lekuko grabatuko ditugu: herri bakoitzean 1950-1965 urteen bitartean jaiotako andrazko bi eta gizonezko bi eta 1985-2000 urteen tartean jaiotako beste andrazko bi eta gizonezko bi, beraz, 48 lekuko guztira. Ondorioz, 6.720 datutik gorako corpusa osatuko dugu. Lekukoak aukeratzekoan, ama herrikoa bertakoa izatea eta aita Arratiakoa izatea jagongo da, ahalik eta interferentzia gutxieneko hiztunak izan daitezen. Ondorengo hizkuntza aldagaiak planteatuko zaizkien testuinguru linguistiko ezberdinetan agertuko dira.

Galdetegian jaso eta aztertuko diren ezaugarriak fonologiari, izen-morfologiari, aditz-morfologiari eta sintaxiari dagozkienak izango dira.

Fonologia arloko ezaugarriak multzo nagusi bitan banatzen dira: alde batetik, arlo segmentala dugu (bokalak eta kontsonanteak) eta, bestetik, arlo suprasegmentala (azentua eta intonazioa). Lan honetan denak landuko ditugu. Arlo segmentalean, fonemen inbentarioa eta arau fonologiko nagusiak deskribatzeaz gain, beharrezkoa denean azterketa akustikoak ere egingo ditugu Praat programa erabiliz (Boersma & Weenik, 2016)¹. Azentuari dagokionez, bertako arau nagusiak ere aztertuko dira (Iglesias, 2014; Hualde, 1997, 2006; Gaminde 2007, 2011). Intonazioari dagokionez, sistema konplexu dinamikotzat hartuta, esaldi mailako osagai prosodikoak eta testu mailakoak bereiz aztertuko dira (Gaminde, 2010; Hualde, 2011; Elordieta, 2008; Gussenhoven, 2002; Pierrehumbert, 1980; Ladd, 1996). Azterketaren oinarria f₀ kurben analisi fonetiko izango da. Esaldi mailako aldagaiak (esaldiaren gailurra eta muga tonuak: L, LH, H, HL) eta sintagma mailako aldagaiak (sintagmaren gailurrak eta aditzaren gailurrak) zehaztuko dira.

Izen morfologiari dagozkien aldagaiak postposizioen inbentariokoak eta euron erabileren arabera aztertuko dira (Iglesias, 2014; Gaminde, 2007; Zuazo, 1998). Aditz morfologian, galdekizuna prestatzean gauza bera egingo da, hots, aditz ez jokatuena eta jokatuena aldagaiak zehaztuko dira euren erabilerarako (Arregi & Nevins, 2006; Gaminde, Romero & Legarra, 2012). Adizkien aldakien azterketa morfofonologikoan oinarrituko gara. Adizki bakoitzak daukan probabilitatea kalkulatu dugu eta morfemen eta arau fonologikoen agerpenen maiztasunetan oinarrituko gara (Gaminde & Eguskiza, 2017).

Azkenik, sintaxian lehenengo eta behin galdekizuna zehazteko testu corpusa batuko da aurre inkesta gisa, jakiteko zein den bertan aldaketa prozesuan dagoena, era berean dagoen bibliografia arakatuko da hori erabakitzeko (Gaminde, 2007; Gaminde, Romero & Legarra, 2012).

Esan bezala, 6.720 datutik gorako corpusa osatuko dugu. Horretarako, datu guztiak .wav formatuan jasoko ditugu. Gero, datuok, Praat (Boersma & Weenik, 2016) programarekin anotatu transkribatu eta analizatu egingo ditugu. Horrela, egingo dugu lan ahalik eta transkripziorik zehatzenak eta objektiboenak eskaintzeko. Datu base bat ere sortuko dugu, non datu guztiak sartuko ditugun. Bertan, aurretiaz zehaztutako faktoreen arabera antolatuko ditugu datuok: geografikoki, belaunaldien arabera eta generoen arabera. Datuok metodo kuantitatiboaren bidez aztertuko ditugu, soziolinguistikako datuak interpretatzeko eta joerak antzemateko darabilen metodologiari jarraituz. Gainera SPSS (Statistical Package for the Social Sciences) programa estatistikoa ere erabiliko da, datu base handiekin lan egiteko interface erabilerraza baitauka. Datuok mapetan ere islatuko ditugu,

¹ Hemendik berreskuratua: www.praat.org/

aldakortasuna erakusteko. Diatech erabiliko dugu horretarako (Aurrekoetxea, Fernandez, Aguirre, Ruiz & Sanchez, 2013).

4. Ondorioak

Azken lerrook, lan honetan proposatutakoa egin ostean ondorioak zelan aurkeztuko ditugun azaltzeko erabiliko ditugu. Planteatutako eta proposatutako datuon analisisien bidez zein esparruk dakarren aldaketarik nabarmenena antzemango dugu, ez baitugu uste denek aldaketa-erritmo bera dakartenik. Eta zein den eraginik handiena daukan faktorea ere (herria, generoa, belaunaldia) zehaztuko dugu, kasuan kasuan.

Gainera, informatzaileen azken sailkapena ere egingo dugu. Informatzaileen erantzunekin ezaugarri guztiak barnebilduko dituen matrizea osatuko dugu eta multzokatze azterketa eta dimentsio aniztunen eskala erabilia informatzaileak sailkatuko ditugu. Horrela ikusiko dugu informatzaileak multzokatuta, bananduta edo nahastatuta agertzen diren herrien, generoen eta belaunaldien arabera ala ez.

Honek guzti honek Arratiako berbakerak ia zelako aldaketa dakarren ikusteko balioko digu, noiz gertatzen den, zeren arabera den eta nork darabilen argituko baitugu, aldagai-ereduak interpretatuz eta azalduz (hizkuntz-aldagaiak eta gizarte-aldagaiak).

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Datozen urteetarako zeregina hezkuntzarekin lan hau uztartzea izango da. Horretarako, Arratiako herri eskoletan elkarrizketak burutuko dira, hizkuntza aldakortasuna zelan ulertzen eta antzematen duten aztertzeko, Arratiako hizkuntza eta hezkuntza lotuz (Goikoetxea, 2003; Maia, 2000). Arratiako eskoletan bertako hizkuntza aldakortasuna erabiltzen den edo erabili beharko litzatekeen aztertu eta gogoeta egingo dugu, Lehen Hezkuntzako mailetan. “Puntu honetan axola diguna da eskolan onartu edo bultzatu behar den hizkera erabakitzeko orduan ea nolako tokia eskaintzen zaion hizkuntzaren aldagarritasun topikoari” (Maia, 2000, 284.or.).

Trudgillek (1983), eskolek hiru jarrera eta jokamolde har ditzaketela diosku: *elimination approach*, *bi-dialectalism* eta *appreciation of dialectal differences*. Lehenengoak, dialektoaren ezaugarrien ezabatzea dakar, bigarrenak, estandarra eta norberaren jatorrizko dialektoa onesten ditu, eta hirugarren eta azkenak, hiztun bakoitzak bere aldaera erabil dezakeela dio zuzenketarik jaso barik. Eredu horretan oinarrituz, eskoletara joko dugu Trudgillek (1983) azaltzen dituen hiru ereduak zeini atxikitzen zaion Arratiako herri eskoletako bakoitza ezagutzeko eta ostean, azken balorazioak, gogoetak eta hobetzeko iradokizunak luzatuko ditugu. Ailegatzen garen puntutik aurrera baita, etorkizunera begirako zeregin berriak proposatuz.

6. Erreferentziak

- Arregi, K., & Nevins, A. (2006), A distributed Morphology Analysis of Present Tense Auxiliaries in Zamudio Basque, *Euskalingua* 6(9), 146-156.
- Aurrekoetxea, G., Fernandez, K., Aguirre, J.R., Ruiz, B., & Sanchez, J. (2013): *Diatech: A new tool for dialectology*. Literary and Linguistic Computing; doi: 10.1093/lc/fqs049.
- Blommaert, J. (2010): *The sociolinguistics of Globalization*, Cambridge University Press, New York.
- Boersma, P., & Weenik, D. (2016). *Praat: doing phonetics by computer* (Version 5.418). [Computer program].
- Bonaparte, L.L. (1863-1869): *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*, Stanford's Geographical Establishment, London.
- Eckert, P. (2000): *Linguistic Variation as Social Practise*, Blackwell, Oxford.
- Elordieta, G. (2008), Euskal azentu eta intonazioari buruzko ikerketa: status quaestionis. Online: http://www.elebilab.com/documentos/archivos/publicaciones/1_Elordieta--Koldo%20Mitxelena%20Katedrarako.pdf (last checked on 24/06/2012)
- Ensunza, A. (2015): *Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasuna denboran eta espazioan*. [Doktoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Gaminde, I. (2007): *Bizkaian zehar: Euskararen Ikuspegi Orokorra*, Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

- (2010): *Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gaztelaniaz*, Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- (2011), “Noraka euskal azentuak?” in G. Aurrekoetxea eta I. Gaminde (Koor.), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I.Jardunaldiak*. UPV/EHU, (63-85). Bilbo: UPV/EHU.
- Gaminde, I & Eguskiza, N. (2017): *Arratiako gazteen aditz laguntzaileen bariazioaz*. (Agertzeko)
- Gaminde, I., Romero, A., & Legarra, H. (2012): *Gramatika eta Hizkuntza Bariazioa Bermeon*, Bermeo, Bermeoko Udala eta Campos Hegaluzea.
- Garmendia, L. (2008), Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskaraz: ikuspegi soziolinguistikoa in *euskalgintza XXI. Mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV.Biltzarra*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1-2.
- Goikoetxea, J.L. (2003): *Euskalkia eta hezkuntza, dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Gussenhoven, C. (2002), Intonation and Interpretation: Phonetics and Phonology, in *Speech Prosody 2002, International Conference*.
- Hualde, J.I. (1997): *Euskararen ezentuerak*. [Anuario del Seminario de Filología Vasca].
- (2006), Estado actual de las investigaciones sobre la acentuación en lengua Vasca, *Oienart* 21, 149-177.
- (2011), “Hitz-mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako” in G. Aurrekoetxea eta I. Gaminde (Koor.), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I.Jardunaldiak*. UPV/EHU.
- Iglesias, A. (2014): *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. [Doktoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Labov, W. (2001): *Principles of linguistic change. Social factors*, Blackwell, Oxford.
- Ladd, D.R. (1996): *Intonational phonology*, Crambridge, Cambridge University Press.
- Lujanbio, O. (2016): *Hizkuntza-aldakortasuna euskaraz. Nafarroa ipar-mendebaldeko bi udalerritan egindako azterketa*. [Doktoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Maia, J. (2000): *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan (eta Bizkaiko eta Nafarroako eskualde banatan eginiko azterketa enpirikoa, euskarazko ereduak geletan)*. [Doktoretza-tesia]. UPV/EHU.
- Martinez, L.V. (2010), Hizkuntzaren aldakortasuna in *Soziolinguistika eskuliburua*, Eusko Jaurlaritzak, 83-121.
- Pierrehumbert, J. (1980): *The phonetics and phonology of English intonation*. [Doktoretza-tesia]. MIT.
- Tagliamonte, S.A. (2012): *Variationist Sociolinguistics. Change, Observation, Interpretation*, Wiley-Blackwell, Oxford.
- Trudgill, P. (1983): *Accent, dialect and school*, Edward Arnold, London.
- (1984): *Language in the British isles*, CUP Archive.
- (2003): *A glossary of sociolinguistics*, Oxford University Press on Demand.
- Zuazo, K. (1998), Euskalkiak, gaur, *FLV*, 30 (78), 191-233.
- (2008): *Euskalkiak, euskararen dialektoak*, Elkar, Donostia.
- (2014): *Euskalkiak*, Elkar, Donostia.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerren azken atal hau tesi honen zuzendaria den Iñaki Gaminderi zuzendua da batik bat. Bere neurririk gabeko laguntasunagatik. Bideanabar, eskerrak ere EUDIA ikerketa-taldeko kide guztiei.

***Ikerketa hau IT1028/16 proiektuaren (Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin) eta GIU 16/22 proiektuaren barruan (Euskal Herriko Unibertsitatearen dirulaguntzarekin) egin da.